

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

#### Ondare Kudeaketa

#### **Jabari publikoko ondasun gisa kalifikatutako udal-lurzatietan dauden bost kokalekuren erabileratara pribatiboa emateko deialdia, ibilgailu elektrikoentzako kargaguneak instalatzeko**

2025eko otsailaren 7an, kokaleku hauetan, eta onetsitako baldintza-agirian ezarritako azalera eta baldintzen arabera, ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak jartzeko jabari-emakiden adjudikaziodun izan litezkeenak hautatzeko dosierra abiarazi eta baldintza-agiria onestea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak:

Kantabrikoaren hiribideko aparkalekua (Michelin parean).

Barazar Mendatearen kaleko aparkalekua.

Bernal Diaz de Luko kaleko aparkalekua (Andra Mari haurreskola zaharraren partzela).

Aguraingo Taldearen kaleko aparkalekua.

Zaramaga plazako aparkalekua.

Dosierra Ogasun Saileko Idazkaritza Teknikoaren Zerbitzuan aztertu ahalko da (Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25), alde aurretik hitzordua eskatuta, eskaintzak aurkezteko egunaren bezperara arte, bulegoko jendaurreko ordutegian. Baldintza-agiria helbide honetan kontsultatu daiteke: <https://v-g.eus/recarga-113>.

Vitoria-Gasteizko Udalaren erregistro nagusian — Teodoro Dublang Margolariaren kalea 25, behea; 01008 Vitoria-Gasteiz — aurkeztu beharko dira proposamenak, 08:30etik 13:00etara, astelehenetik ostiralera, edo postaz, urriaren 12ko 1098/2001 LEDaren 80.4 artikuluan xedatutakoaren arabera; 2025eko martxoaren 31 izango da azken eguna.

Postaz igorritz gero, bidalketa zein egunetan egin den justifikatu beharko du lehiatzaileak, eta bidalketa egunean bertan eskaintza egin izana jakinarazi deialdia egin duen organoari, posta elektronikoz ([ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org](mailto:ofertasconcursos@vitoria-gasteiz.org)).

Bi eskakizun horiek bete ezean, iragarkian adierazitako epea bukatzen den eguna eta ordua igaro ondoren jasotzen badu proposamena deialdia egin duen organoak, ez da hura onartuko. Edonola ere, adierazitako datatik hamar egun natural igarotzen direnean proposamena iritsi ez bada, ez da inolaz ere onartuko.

Aurkezteko epea bukatzen delarik, balorazio-batzordea eratuko da, zeinak gaitasun-beteki-kizunak betetzen diren egiaztatuko baitu, eta lizitatzailen proposamenak jasotzen dituzten gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoaren eguna eta ordua zehaztuko — <https://v-g.eus/recarga-113> helbidean argitaratuko da—.

Batzordeak proposamenak aztertuko ditu, horren akta jasoko du, eta esleipen-proposamena helaraziko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, hark onetsi dezan.

Okupatuko den jabari publikoaren ehuneko 3ko bermea jarri beharko du esleipendunak — esleipen-erabakiaren bidez jakinaraziko da zenbatekoa —, 10 egun balioduneko epean, esleipenaren jakinarazpena jasotzen duen egunaren biharamunetik.

Esleipendunaren kontura joango dira eskualdatzeak eragingo dituen gastu eta zerga guztiak: lizitazio-iragarkia ALHAOn argitaratzeko gastuak, notario eta erregistroari dagozkienak, zergak eta gainerakoak.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko otsailaren 14an

*Ogasun Saileko zinegotzi ordezkaria*  
*JON ARMENTIA FRUCTUOSO*